

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**SAN MARTIN 9**

Egilea eta data: J. Clemente de Osinalde; 1901

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituen, gehi 1923ko jasodura atzeraeman bat. 2001-2007 urteetan, eraberritzeko eta jasodurak egiteko lanen mende izan zen. Harlanduzko fatxada da, eta behe oinean arku erregularrak ditu (ia osorik berregin ziren hareharriz xaflatuta eta erliebearekin). Hormigoizko begiratokiak ditu (1923koak ere bai) kantoiko alakan eta San Martin kalera ematen duen alboko ertzeko baoan. Jatorriz proiektu komuna Getaria 18rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak (atzeraemanak), eraikuntzaren erlaitzaren gainetik, 5. goi oinaren altueran, dagoen balastrada izan ezik, babes hartara ere zabaltzen da.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.